

## HITZA MARRAZTU

### 0. Edukiak

Giza Eskubideak orokorrean.

### 1. -Definizioa

Espresio plastikoa eta antzezpenaren bidez Hitzarmenak jasotzen dituen eskubideak barneratzean datza.

### 2. -Helburuak

- GEHU(Giza Eskubideen Hitzarmen Unibertsalaren)-en ezagutza garatu.
- Pentsakera sortzailea eta taldekoa garatu, eta konsziente izan irudiak nola erabiltzen ditugun.
- Elkartasuna sustatu eta aniztasunerako errespetua landu.

### 3. -Partaideak

8 lagun gutxienez.

Adina: 12 urtetik aurrera.

### 4. -Materiala

GEHUko artikuluak aipatzen duen eskutitzaren murala.

Orrri handi bat eta errotulagailua puntuaketa idazteko.

Paperezko orriak (DIN A 4 neurrikoak) eta boligrafoak/arkatzak marrazkilarientzat, orri bana txanda bakoitzeko.

Kola, zelo edo txintxetak marrazkiak erakusteko.

### 5. -Hasierarako oharra

Talde txikia.

Talde handia.

### 6.-Garapena

4 edo 5eko taldeak sortzeko esango diegu gazteei eta sortutako taldeari izena jartzeko.

Ekintza honetan taldeka lan egingo dute. Taldeko bakoitzeko kideari GEHUko artikulu bat emango diegu marraz dezan. Gainontzeko partaideek zein eskubideaz ari den asmatu beharko dute. Asmatzen duen lehen taldeak puztarri bat irabaziko du.

Talde bakoitzari papera eta arkatza hartu eta gelako txokoren batean esertzeko esango diegu. Taldeak gelan barreiatu egin behar dute eta ezin dute batek besteara entzun.

Talde bakoitzeko ordezkari bati deitzen zaio eta zerrendako eskubide bat emango diegu, adibidez "torturaren debekua" edo "bizitzarako eskubidea".

Beren taldera itzuli eta eskubidea marrazteko eskatuko diegu bere taldekideek zertaz ari den asmatzen duten bitartean. Irudiak bakarrik marraz dezakete: ezinda zenbakirik edo letrarik idatzi. Ezin da hitz egin, nahiz baieztatu edo ezeztatze aukera ematen den.

Gainontzeko taldekideek asmatutakoa bakarrik esan dezakete, ezin dute galderarik egin.

Txanda bakoitzaren ondoren (denbora amaituta), marrazkigile bakoitzari zein eskubidez ari zen orrian bertan idazteko eskatuko zaio nahiz marrazkia bukatu edo ez eta marrazki guztiak paretan jarriko dira bat abestearen aldamenean.

Bigarren txanda bat egingo dugu asmatu diren jakiteko eta marrazkigile izango den beste bolondres ordezkariari deitu eta eskubide berri bat erakutsiko zaie marraztu dezaten. 7 edo 8 txanda burutuko ditugu. Txanda bakoitzean pertsona ezberdin batek marraztu behar du.

Azkenean, marrazkiak zintzilikatuko ditugu eta honela bakoitzaren interpretatzeko moduak ikusteko eta eztabaidatzeko aukera izango dugu.

#### Aldaketa

8 pertsona baino gutxiago izan ezkerro, talde bat bakarrik eginaz jolas daiteke.

#### **7. -Ebaluaketa**

Burururiko dinamika bera aztertuko da lehendabizi eta ondoren, GGEE inguruan jendeak zer dakien hitz egiteko aukera izan daiteke.

GGEE marraztea uste baino errazago edo zailagoa da? Nola erabakitzen zuten eskubidea bera marraztea? Nondik ateratzen zituzten irudiak? Nola konparatu dira eskubide beraren marrazki ezberdinak? Marrazki guztiak aztertu ondoren, GGEE inguruan zer jabetu diren azal dezatela. GGEE beraien bizitzan garrantzirik dutela uste al dute? Zenbateko garrantzia?

#### **8. -Iturria**

COMPASS, GGEE hezkuntza gazteekin lantzeko eskuliburua. Europako Batzordeko argitalpenak.